

**PROGRAMA**  
0111 ZOR PUBLIKOA

**ARDURADUNA**  
90 ZOR PUBLIKOA  
OGASUN ETA FINANTZETAKO SAILBURUORDEA

**PROGRAMA**  
0111 DEUDA PÚBLICA

**RESPONSABLE**  
90 DEUDA PÚBLICA  
VICECONSEJERO DE HACIENDA Y FINANZAS

HELBURUA

1. AURREKONTUEI BURUZKO LEGEAK ZORPETZE-ERAGIKETENGATIK EKITALDIRAKO EZARTZEN DITUEN DIRU-SARRERAK ESKURATZEA, AHALIK ETA FINANTZA-KOSTURIK TXIKIENAREKIN.
2. KUDEAKETA AKTIBOA EGITEA ZORPETZEARI DAGOZKION ARRISKUEN ESTALDURAN.
3. ERAGINKORTASUNA HOBETZEA ZORRAREN SALDO BIZAREN KUDEAKETAN ETA ADMINISTRAZIOAN.
4. DIBISA-JAULKIPENEI AITORTUTAKO RATING-AK FINKATZEA, JAULKITZAILEAK NAZIOARTEAN DUEN KAUDIMENAREN ADIERAZLE GISA (AAA/Aaa/AAA).

OBJETIVO

1. OBTENCIÓN DE LOS INGRESOS POR ENDEUDAMIENTO FIJADOS PARA EL EJERCICIO EN LA LEY DE PRESUPUESTOS MINIMIZANDO SU COSTE FINANCIERO.
2. REALIZACIÓN DE UNA GESTIÓN ACTIVA EN LA COBERTURA DE LOS RIESGOS ASOCIADOS AL ENDEUDAMIENTO.
3. INCREMENTAR LA EFICIENCIA EN LA GESTIÓN Y ADMINISTRACIÓN DEL SALDO VIVO DE DEUDA.
4. CONSOLIDACIÓN DE LOS RATING CONCEDIDOS A LAS EMISIONES EN DIVISAS, COMO EXPONENTE INTERNACIONAL DE LA SOLVENCIA DEL EMISOR (AAA/Aaa/AAA).

BETETZE-MAILA

1). 2009ko ekitaldiko Aurrekontuei buruzko 19/2008 Legeak zorpetze-eragiketak baimentzen ditu, muga honekin: ekitaldiaren amaierako saldoak ezingo du gainditu ekitaldiaren hasierako saldoa, ez behintzat 300.000.000 eurotik gora. Presako aurrekontu-neurriek buruzko urriaren 8ko 1/2009 Legeak aipatutako muga handitu zuen, 514,63 milioi eurotan ezarriz, dirusarrerengatiko desbideratzek berrikusiz, eta ezin izango dela 1.350 milioi euroko kopurua gainditu. Gehikuntzaren muga horrek, ekitaldiaren amortizazioarekin batera (61,15 milioi euro), 1.411,15 milioi euroko jaulkipen-zifra baimentzen du.

Diruzaintzaren bilakaeraren eta aurrekontuaren likidazioa egikaritzeko aurreikuspenen etengabeko segimendua oinarri hartuta, beste 6 mailegu gauzatu dira, 525 milioirekin (Europako Inbertsio Bankuarekin eta beste erakunde batzuekin), eta bi bono-jaulkipen egin dira, 886 milioiko zenbatekoarekin.

Zorpetze berria egin, mailegu sindikatu baten 61,15 milioiko amortizazioa egon eta 575 milioiko beste bi prestatu izanaren ondorioz, 1.588,85 milioi euro hazi da zor bizia, eta 1.349,85 milioi formalizatutakoa.

Kapital-merkatuen bilakaeraren etengabeko segimendua egin da, aipatutako eragiketak aurretiaz egiteko momentu eta ezaugarri egokienak zehazteko, ahal den neurrian.

2). Aurreko ekitaldian ez da inolako estaldura-eragiketarik prestatu, finantza-merkatuen bilakaera kontuan hartuz ekitaldian izandako arriskuaren banaketa arrazoizkotzat jo

GRADO DE CUMPLIMIENTO

1). La Ley 19/2008 de Presupuestos del ejercicio 2009, autoriza operaciones de endeudamiento, de forma que el saldo al cierre del ejercicio no supere el correspondiente saldo al comienzo del mismo en más de 300.000.000 euros. La Ley 1/2009, de 8 de octubre, de medidas presupuestarias urgentes, incrementa el límite mencionado hasta 514,63 millones de euros, con revisión por las desviaciones de ingresos, sin que en ningún caso pueda superar los 1.350 millones de euros. Este límite de incremento unido a la amortización del ejercicio, 61,15 millones de euros, permite una cifra de emisión de 1.411,15 millones de euros

En base a un seguimiento constante de la evolución de la Tesorería así como de las previsiones de ejecución de la liquidación presupuestaria se han formalizado 6 nuevos préstamos (con el Banco Europeo de Inversiones y otras entidades) por importe de 525 millones y se han realizado dos emisiones de bonos por 886 millones.

Esta formalización de nuevo endeudamiento junto con la amortización de un importe de 61,15 millones de un préstamo sindicado y la disposición de otros dos por importe de 575 millones, ha dado lugar a un incremento del endeudamiento vivo de 1.588,85 millones de euros y del formalizado de 1.349,85 millones

Se ha llevado a cabo un seguimiento constante de la evolución de los mercados de capitales con el fin de delimitar, en la medida de lo posible, los momentos y características más idóneos para la realización de las operaciones citadas con anterioridad.

2). Durante el pasado ejercicio no se ha instrumentado ninguna operación de cobertura, al considerar razonable a tenor de la evolución de los mercados financieros la

baita, eragiketa bizien multzotik eratorritako arrisku-egituraren arabera.

*distribución del riesgo existente durante el ejercicio, en función de la estructura del riesgo derivadas del conjunto de operaciones vivas.*

3). Urte osoan zehar aldiro bilerak egin dira eta etengabeko komunikazioa izan da Bilboko Burtsarekin. Horien helburua erakunde horren bidezko ordainketen likidazioa egiteko prozedurak hobetza izan da. Bilboko Burtsan Euskadiko Zor Publikoak izan duen kontratazio-bolumenak, termino nominaletan, gutxitzen jarraitu du zirkulazioan dauden bonuen bolumena urria delako. Hala eta guztiz ere, merkatuak berriz ere kontrapartida eskaini die bertara joan diren inbertitzale guztiei, beren posizioak desegin ditzaten.

3). Se han mantenido a lo largo de todo el año reuniones periódicas y una comunicación constante con la Bolsa de Bilbao tendentes a mejorar los procedimientos de liquidación de pagos a través de dicha institución. El volumen de contratación en términos nominales de Deuda Pública de Euskadi en la Bolsa de Bilbao ha continuado reduciéndose dado el escaso volumen de deuda formalizada en bonos en circulación. De todas formas el mercado ha seguido ofreciendo contrapartida para todos los inversores que se han dirigido a él para deshacer sus posiciones.

4). Autonomia Erkidegoak epe luzera kaudimenaren (rating) gainean duen kalifikazio hobezina mantentzeko eta finkatzeko, urtero bilera bat egin da nazioarteko hiru agentzia ospetsuenekin, Standard & Poor's, Moody's Investors Service eta Fitch Ratings, alegia, bere informazioa eguneratzeko, eskura dauden datu berrien arabera (aurreko aurrekontuaren likidazioa, berriaren neurria, zorraren bolumena, etab.). Era berean, informazio osagarria igorri zaie aldiro-aldiro egin dizkigutenei eskaerei erantzunez, harreman malgua eta jarraitua ezartzearren bi aldeen artean.

4). Con el fin de mantener y consolidar la óptima calificación sobre la solvencia (rating) a largo plazo que goza la Comunidad Autónoma, se ha llevado a cabo una reunión anual con cada una de las tres agencias internacionales más prestigiosas, Standard & Poor's, Moody's Investors Service y Fitch Ratings, para actualizar su información a tenor de los nuevos datos disponibles (liquidación del presupuesto anterior, magnitud del nuevo, volumen de endeudamiento, etc.). Asimismo, se les ha remitido información adicional de forma periódica en atención a sus demandas con el fin de implementar una relación ágil y fluida entre las dos partes.

Aurreko kontuan hartuta, hiru agentziek eutsi egin diete beren eskaletan handienak diren kalifikazioei:

- Standard & Poor's AAA.
  - Moody's Investors Service: Aaa.
  - Fitch Ratings: AAA,
- Lehenengo biek ikuspegi egonkorra izan dute, eta hirugarrenak ikuspegi negatiboa.

Considerando lo anterior, las tres agencias han mantenido las calificaciones en las máximas posibles de sus escalas:

- Standard & Poor's AAA.
- Moody's Investors Service: Aaa.
- Fitch Ratings: AAA,

Las dos primeras con perspectiva estable y la tercera con perspectiva negativa.

Horrek esan nahi du ahalik eta kalifikazio onenak mantendu direla hiru agentzietan, bitan Estatuaren nota berdinduz eta batean gaindituz.

Esto supone mantener las mejores calificaciones posibles de las tres agencias igualando la nota del Estado en dos de ellas y superándola en otra.

KOSTU / COSTE	ZENBATEKOA IMPORTE	AURREKONTU GAIN %a % SOBRE PRESUPUESTO	
		KAPITULUAK / CAPITULOS	
Funtzionamendu Gastuak	(Milaka Euroak) (Miles de Euros)		
2 - Gastos de funcionamiento	19	15%	
Finantza Gastuak			
3 - Gastos Financieros	22.478	39%	
Finantza-Pasiboen Gutxitzea			
9 - Disminución de pasivos financieros	61.150	100%	

<b>SARRERAK / INGRESOS</b>		<b>AURREKONTU GAIN %a</b>  <b>% SOBRE PRESUPUESTO</b>
<b>KAPITULUAK / CAPITULOS</b>	<b>ZENBATEKOA IMPORTE</b>	
Finantza-Pasiboen Gehikuntza 9 - <i>Aumento de pasivos financieros</i>	(Milaka Euroak) (Miles de Euros)  1.411.000	245%